


Euskal AEko Eraikuntza %15,3 gehitu zen 2018ko laugarren hiruhilekoan, Etxegintzak bultzaturik

2018. urtean zehar %12,5eko gehikuntza izan da guztira, Etxegintzak bultzaturik %13,5ekin

Eustaten arabera, 2018ko laugarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeenan eta urte artean %15,3 nominala gehitu zen Euskal AEko Eraikuntza.

Urtaroen eragina zuzendurik, 2018ko laugarren hiruhilekoan Eraikuntza %3,7 gehitu zen, 2018ko hirugarrenaren aldean.



Eraikuntzaren sektorearen jardueraren igoera hiruhileko honetan zor izan zitzaion Etxegintzaren azpisektorean izaniko jokamolde positiboari, zeren urte artean %17,3 egin baitzuen gora; Obra Zibilaren azpisektoreak, aldiz, %1,0 egin zuen behera.

Hiruhileko artean, sektorearen jarduera 2018ko laugarren hiruhilekoan aurrekoarekin alderatuz gero, Etxegintzan %4,2ko bilakaera positiboa izan zen; Obra Zibilean, %1,5eko jaitsiera.

Eraikuntzako enplegua %1,1 gehitu zen 2018ko laugarren hiruhilekoan hirugarrenaren aldean.

Eraikuntzaren koiunturaren Indizea. Euskal AE. Aldakuntza tasak (%). IV/2018

	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	IV 18/IV 17	At/At-1 (1)	IV 18/III 18	III 18/II 18
Produkzioaren Indizea	15,3	12,5	3,7	1,8
Eraikuntza	17,3	13,5	4,2	2,8
Obra zibila	-1,0	4,9	-1,5	-6,2
Landunen Indizeak	-	4,3	1,1	0,8

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako Indizea

Urteko balantzea

2018 osoan, Eraikuntzaren koiunturaren indizea %12,5 gehitu da aurreko urtekoaren aldean, jokamolde positiboekin hura osatzen duten bi azpisektoreena: Etxegintza %13,5 handitu zen, 2017an lorturiko igoerak hobetuz; Obra Zibilak ere, bestalde, tasa positiboak ditu erakusten, 2017aren aldean %4,9ko igoerarekin. Enpleguaz bezainbatean, okupatutako langileen indizeak %4,3ko hazkundera eduki zuen 2018an, handiena 2001etik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62